

Ataungo Iturriak

2005eko ekainetik 2006ko otsailera

A T A U N I K E R

Kultur Elkartea

Joxean Dorronsoro Esnaola

Laguntzaileak:

Aitor Aiala (Kopiaketa)

Jesus Etxeberria (Argazkien eskaneatzea)

M. Larrea (Aurkezpena)

Iturri bilketa-lan hau 2005eko ekainaren San Joan egunean hasi eta 2006ko otsailean amaitu dut. Hori dela-eta uda-negu sasoiko eta uraren eskasia eta ugaritasuna argazkietan nabari ikusten dira.

Hainbat iturri, baserri batzuk hornitzeko erabiliak izan dira, eta hori dela eta, horietako batzuk bertatik ura edan ahal izateko oso deseroso utzi dira. Ez da posible izango baserritarako nahiz ibiltarientzako baliagarri jartzea? Iturri publiko hauetatik garai batean zenbat etxe, baimenik gabe, hornitu ziren?

Orokorrean iturri gehienak, utzikieriaz edo, nahiko egoera txarrean daude. Posible izango litzateke Udalak "errepaso" bat denei ematea eta seinaleztapena eguneratzea? Ez dira denak ezagunak eta bidean galtzen doaz.

Udalak iturrien errolda egin dauka? Hainbat lan "auzolanez" egin da gure herrian, gaur egun ere saiatuko ginateke "auzolanez" Udalaren babesean iturrien txukunketa-lan bat egitea?

Joxean Dorronsoro

Aurkibidea

- 1- INTSUSTI
- 2- ERREKARTE
- 3- CHUTI ITURRITA
- 4- Amundarain baserria
- 5- Suki Baserria
- 6- SORO HAUNDI.
- 7- ITURRI HAUNDI
- 8- PAXKUAL
- 9- METOLAZTI
- 10- ARRONDO
- 11- ITURRALDE
- 12- OKARIZTI / ETXEBERRI
- 13- NEARREI
- 14- PUTZU ALDEA
- 15- Urdagain Baserria
- 16- ALDARRETA
- 17- UELAINGO
- 18- LIZTORRE
- 19- AGERRE
- 20- BORDA ZULO
- 21- Sorozabal baserria
- 22- ANTZO / AUNTSORO

- 23- Askatxoa Lauztiako Bas
- 24- INBIDITTA
- 25- MARTI
- 26- ITURRITXO /
DORRONSO
- 27- ARRIBASO
- 28- AKERRETA
- 29- URBARRENA /
URGOIENA
- 30- URKILLA
- 31- AMUSTA
- 32- ITURTXOTA
- 33- AIZKORRONDO
- 34- BEDAMA
- 35- ASKA
- 36- ALDATSO
- 37- Alas Barrena
- 38- SAHASTI ZAHAR
- 39- AMUÑAIN (BEHEKOA)
- 40- BELTSOARAS
- 41- KAXETA
- 42- Agautz Mendi magalean

- 43- GOIKO / AMILETA
- 44- SALETXE (Aitzarte)
- 45- ITURTXO
- 46- LAUTZ BELTZ
- 47- ITURRIOTZ
- 48- ABAUKO
- 49- BELI (Bela?)
- 50- IBARONDO / IBONDO
- 51- MATXI
- 52- Larditxi Baserria
- 53- AGORTU / ABORTU
- 54- BERAUN
- 55- SAN GREGORIO PLAZA
- 56- ALA
- 57- UGEI
- 58- IZKUTUNE / Beiztigo
- 59- Sotxota baserria
- 60- SAMOLATZA
- 61- ITURRI BERRIA
- 62- ERREMEDIIO
- 63- Arantzamendi azpian
- 64- ERDIKO
- 65- ITURRITXO



Intsusti

Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

Kokapena: Intsustin, Aitzartetik Aralar bidean, Alegi baserritik gertu.

➡ Egoera:

Ona. Berriztatze-lanak (gaur egun ezagutzen dugun bezala) 1967. urtean eginak. Hargintza-lanak Kresenzio Imaz jaunaren lankidetzari eta gidaritzari esker Ataungo gazteek egin.

➡ Txukuntze-lanak:

1981eko irailaren 13an eta 20an OARGI-TROSKAETAko 20 bat lagun txukuntze-lanean aritu zen

2004ko udazkenean, ur-bideratze konponketak (erregistro berriak, etab.). harraskaren barne-txukuntzea, ingurunearen aurrealdeko itxitura 80 bat egurrezko esola bidez egin zen. Lan hauek Joxe Urrestarazu eta Joxean Dorronsorok, Udaletxeak jarritako materialekin egin zuten

Iturrian bertso hau irakur daiteke:

«Aralarreko babes batean
nago paketsu eta ezti
ur gardenean betiko otsa
arturik nere abesti

Euskalerriko egarrituen
edan leku edo titi
artu maiteok nere laztanak.

Ezpaiñak nai ditut busti
ni bai naiz zuen betiko [mendiko] ama
maite zaituzen INTSUSTI»
«Lazkao Txiki»



Errekarteko

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Koai baserrira iristear, Aralarreko bide ondoan eta Intzarzu mendiaren azpian.



Egoera:

Agortua.

Ur gutxi eta freskotik baino epeletik gertuago. Iturri grifoduna.



Hara zer dagoen idatzia:

«Lazkao udala 1992...
Intzartzu alde batean
eta kobadi bestean
Hiru udalerrri
Ataun Zaldibi
eta Lazkao tartean
Irastortzaren oinean

Aralarren magalean
Egarritzean
Dasta hemendik
Nahi duzunean
Mendizaleok
zuen zai nago
ni bakardadean.»



Chuti Iturrita

«TXUTI Iturria»

2005eko uda/negua



Kokapena:

Lasarteko lepoa deiturikotik eta Kobadi baserrirantz dagoen bidea utzi eta eskuinera hartu, eta handik 10 bat minutura dagoen txoko batean.



Egoera:

Agortua.

Iturri eraikuntza itxurosoa. Mereziko luke errekupeazio lanak egitea.



Zera dago irakurgai:

«Esta fuente fue hecha por Pedro Imaz. Ataun 11-2-68»



Iturria
2005eko uda/negua



- ➡ **Kokapena:**
Amundarain baserritik Kobairako bidean, eskuinean metro gutxira.
- **Egoera:**
Ur oso gutxi.
Iturri hau berria da. Bere garaian, Intsusti iturritik datozen urak, Suki baserrira bideratu ziren goitik dagoen depositutik. Intsustiko urak Lazkao, Lazkao-mendi, Suki zaharra, Saltseberria baserria... hornitzen ditu.



Iturria
(Suki baserriaren aurrekoa)
2005eko uda/negua



Kokapena:

Suki zaharrearan.



Egoera:

Agortua.

Iturri hau berria da. Bere garaian, Intsusti iturritik datozen urak Suki baserrira bideratu ziren goitik dagoen depositutik. Intsustiko urak Lazkao, Lazkao-mendi, Suki Zaharra, Saltseberria baserria... hornitzen ditu.

Berria egin ostean konturatu ziren denentzako urik ez zegoela eta pasabidea (iturrira doana alegia) itxi egin zuten. Historio hau kontatu didan Suki baserriko bizilaguna kexu dago, zeren ba omen dago bere funtzionamendurako behar adina ur. Arazo hau zuzentzea, urari pasabidea irekitzea arduradunen esku dago.



Soro Haundi

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Sukia baserritik metro gutxira, maldan behera. Zubikoetara doan bidetik gertu, ezker aldeko belardian.



Egoera:

Ur emana nahiko ugaria. Zeharo abandonatua dago. Etxeetan urik ez zegoenean, kasu honetan Suki zaharrean, iturri honetan egiten zituzten arropa-garbiketak eta noski edateko ura etxeko beharretarako. Gaur egun iturri honetan, bai aska eta bai arropa astintzeko harraska ikus daitezke. Merezi du berreskuratzea. Honen berri Suki baserriko Joanito Goenak eman zidan eta bere ume-garaitan hamaika aldiz horra ur bila joaten omen ziren.



Iturri Haundi

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Suki Zaharretik gertu. San Martin auzorantz doan bide ondoan.



Egoera:

Ur gutxi. Iturrian eta ur-askan belar, larre, etab. ugari dago eta zaborraz estalita dago.



Paxkual

Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

San Martin auzoan, Donjuane eta inguruko etxeek inguratutako plazatxoan.

➤ Egoera:

Ur emana ona. Iturri eraikuntzari zaharberritze lanak egin behar litzaizkioke. Batez ere kontuan izanik iturri honen kokapena (urbanizazioaren erdian).

Etxe askotan ohizko da iturri honetatik ura ontzitan etxeratzea eta bertatik edatea, nahiz eta gaur egun ez dakit, zeren edangarria dela zalantzan jartzen duen "ez edatekoa" oharra irakur daiteke. Itxaro dezagun luzaro baino lehen egoera zuzenduko dutela.

(jarraitzen du)

Paxkual

Iturria

Inazio Munduatek Udaletxeko artxiboan egin duen miaketanari esker, iturriaren historian sar gintezke:

1852. urtea. Herri barruko edo kaleko (S. Martin auzoa) edateko ur-gabezia egoerari irtenbidea aurkitu nahi eta, Udalak iturria eraikitzea Donjuaneko plazan erabakitzen du.

Abenduan, proiektuaren aurrekontuaren ardura Tolosako Mariano Joxe Laskurain jaunari ematen zaio. Udalak Laskurain jaunaren lanak jaso ditu. Finantziaketari aurre egiteko Foru Aldundiaren baimenarekin

Ura bideratuko litzateke ALA izeneko iturburutik. Iturburu hau Aitzondo baserritik 150en bat m. dago, Intzartzurarantz bide ondoan.

5.000 karga egur (kargako 7 erreal) Villafranca-ko (Ordizia) Martin Usabiaga jaunari saltzen zaizkio, ordainketaren lehen zatia, (10.500 erreal) hirutik bat, berehala egiten duelarik. Salmenta hau egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena behar izaten zen.

Ikusten denez garai hartan ere asmoetatik egitera... **8 urte luze** igaro ondoren enkantera atera zuten.

(jarraitzen du)

Paxkual

Iturria

Lehenago, jakina, denbora horretan sortutako aldaketak zirela eta, soldatak eta abar... Aurrekontua eguneratzea Laskurain jaunak egin zuen

1861-06-02

Enkantea eginik, lanak egiteko ardura Silbestre Antonio Barandiaran Barandiaran jaunak hartu zuen, baldintza hauetan:

Ordaintzeko kopuru osoa 28.000 errealekoa izango zen.

Udalak hiru zatitan ordainduko zuen.

- a) hitzarmena sinatzean, 3tik 1.
- b) lanaren lautik hiru eginak zeudenean eraikuntzaren arduradun Mariano Jose Laskurain injineru jaunak ziurtatutakoaren arabera.
- c) gelditzen zena lanak burutzerakoan, eta bitartean udalak eskuratzen zuen eraikuntzaren jabetza.

Eraikuntzak urte bateko bermea zuen.

(jarraitzen du)

Paxkual

Iturria

1862-08-02

Aztertzaileak (Auditoriak) Udalaren egoera ekonomikoak 12.500 errealeko zuloa duela agertzen du, hara nora doazen:

Garai hartan ere «Industri birmoldaketa» edo errekonbertsioari jarraiki edo..., Paxkual iturria zaintzeko ardura zuena Paskual Irastorza Eskisabel jauna izan zen (Gurutza Berrian jaioa eta gero Arrateta etxera bizitzera joana) eta diru eskasiagatik edo lanbide hori kentzen diote.

Aurrerantzean **Aguazilaren** egitekoa izanen da lanbidea. Beraz soldata batekin bi lan betetzea. Izena nondik ote zetorkion bada? lehenengo zaintzaleen izenetik? Edonork pentsa dezala nondik datorkion. Ez baita oso zaila



Metolazti

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Ergoneko zubitik ezker aldera, Metolazti mendirantz doan bide ondoan. Juananeko Borda Ehiztarien elkartearen aurrean.



Egoera:


Ur emana nahiko ona. Nahiz eta, gorabehera handikoa da, iturri honek ehiztarien ehiz txakurren beharrak hornitzen ditu. Iturria nahiko egoki egina dago. Jakin dudanaren arabera 1999. urtean egin zen. Iturri hau kokatuta dagoen leku berberean ura ez da jaiotzen, urruti ez dagoen gune natural batean baizik.



Arrondoko

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Etxetxiki eta Lopetxe baserriaren ondoan.



Egoera:

Nahiko ona.

Iturri honek aurreko garaietara garamatza. Inazio Munduatek udal-artxiboan eginiko miaketa-lanari esker:

Arrondotarrak, Astigarragako gehienak eta Arin auzokoak ere, edateko behar zuten ura Iturriaren iturburu bertatik hartzen zuten.

Ibilbide neketsua zelarik ... horrela dio aktak: "Este manantial conduce un camino de bastante cuesta y particularmente en invierno hay que acudir con muchísimo cuidado para evitar desgracias y al mismo tiempo se halla bastante distante ..." Udalak auzotarren zailtasunak arindu edo murriztu nahi zituen

Horretarako aurrekontu edo presupuestoa eskatzea erabaki zuen.

(jarraitzen du)

Arrondoko

Iturria

1862-01-05ean; Errepidetako ingeniari zen Mariano Jose Laskurain jaunak, eskatu zitzaion argitasun eta aurrekontuen berri eman zuen. Zegoen tokitik, iturburutik alegia, behera jaistea 4.034 erreal kostako zela.

Iturriaren jaistea zen Iturburutik zuzen-zuzenean erreka ondora ekartzea.

Kokatua, Etxetxiki atzetik -15en bat minututara-- Eskitxal baserriraruntz bidearen behealdean, 4 bat metrotara. Arrondoko Saletxe baserriaren lur-soro edo belardi goialdean.

1912ko urtea, zegoen tokitik --erreka ondotik-- gaur dagoen tokira ekartzeko ahaleginak hutsean gelditu ziren. Udala eta auzotarrak ez baitziren ados jartzen. Batzuek orain dagoen tokira eta beste batzuek Rafael-enea, Iturralde etxe ingurura eraman nahi baitzuten.

Azkenean gaurko tokira ekarri zuten, Espillako Felix Eskisabel-ek berri eman digunez: Iturria 1935. urte inguruan egina izan zen. Iturbuturik errekarako erdi-bidean edo erantsi zioten hodia gaur ezagutzen dugun iturria hornitu ahal izateko.

(jarraitzen du)

Arrondoko

Iturria

Auzolanean egina, Udaletxeak ordaindu zituen Elias igeltsero ofizialaren gastuak! Auzokoek dirua ere eman zuten, 100 duro abereak zeuzkatenek eta duro bat gainerakoek.

Ba omen ziren ordaindu nahi ez zutenak, beraiek ur-arazorik ez zutela argudiatuz. Nor izango eta, hiru auzokide dezaketentsuenetakoak. Egoera berean zeuden beste auzokide batzuk ordaindu zuten.

1962-08-21ean udalak aginduta, --Alkatea Zelebearko Estanislao Dorronsoro— Arrondokoek auzolanean berritu zuten. Auzotarren artean eztabaidak egon omen ziren iturrira ur gutxi zetorrenaren arrazoiaren inguruan... (Azken berri hau Udaletxetik Jon Aizpuruak atera du).

Orain dela urte gutxi, udalak ordainduta, auzotarrek hodi berria jarri zioten.



Iturralde

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Astigarraga auzoan, Txatañene etxe aurrean, errekaen beste aldean.



Egoera:

Ur ugari dario. Tututik kanpo ere ura dario. Konpontze-lan bat eskatzen du. Berriztatze-lanak inguruko auzokideek orain dela 12 urte eginak.

Astigarraga auzokoek iturri hau eta bere ingurunea oso maite izan dute beti.



Okarizti / Etxeberri

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Okarizti etxetik 100 metrotara. Etxeberri baserriaren lurrekin muga egiten du. Suki Zaharreko bide azpian.



Egoera:

Abandonatua. Lehen goiko aldean kokatua, errepide berria egiterakoan oraingo lekura jaitsia. Auzotar batek esan zidanez, ura ba omen dago.

Lurralde horretan etxe berriak egitekoak dira, zergatik ez iturri hori urbanizazio barnean utzi edo kokatu?



Nearreiko

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Saltseberri-Intzartzu bidegurutzetik 100 metrotara. Suki Zaharrera doan bide ondoan, eskuinetara.



Egoera:

Oso txarra. Ia urik gabe. Ia urik gabe ez urik ez dagoelako, orain urte batzuk Saletse baserrira bideratu zirelako baizik.

Auzokoek esan didatenez, gaur egun lehen egindako desbideraketak ez du arrazoirik, zeren Intsusti iturritik Lazkao Herrirako ura hartu zutenetik, Suki zehar, Saltseberri... hornituak omen daude.

Beraiek esan didatenez NEARREIKO iturria oso ona da. Errekuperatzea merezi omen du.



Putzu Aldea

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Baindi baserritik 100 metrora belardi baten inguruan. Zuhaitzez osatutako basotxo baten txokoan.



Egoera:

Ur aldetik ondo. Iturri bezala oso gaizki.



Iturria
2005eko uda/negua



Kokapena:

Urdangain baseritik gertu, *Garagartza-Aldarreta* zehar bidearen ondoan, eskuinean.



Egoera:

Nahiko ondo.



Aldarretako

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Aldarreta baserritik kilometro batera. Uelainera doan bidean, eskuinera, bide ondoan.



Egoera:

Nahiko ona, ur sulfurikoa. Ez dauka askarik baizik eta depositu batetik eta edateko oso deserosoa gertatzen da.



Uelaingo

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Aldakio etxetik 400 metrotara. Uelainera doan gurdi-bidearen ondoan. Bertara iristea nahiko trabatua da. Harri bidea izanik ere itxituraren oztopoak ditu.



Egoera:

Kaxkarra, ur eskasia. Iturri ingurua oso lokaztua. Iturri bikaina izan zitekeen baino gaur egun, tamalez, ez da horrela.



Liztorre

Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

Urrestarazuazpi baserritik 400 metrotara. Exkitxal baserrira doan bidearen azpialdean. Etxetxikitik (Arrondoa) datorrenarekin gurutzatzen denetik oso gertu edo ia bertan.

➤ Egoera:

Txarra. Hainbat baserritara ura bideratu dute (Exkitxal, etab.). Uraska estalia da.

Iturri honek ere, beste askok bezala, mereziko luke begiratze lanen bat. Dagoen moduan dagoela bidean doanarentzat ez dago edateko eroso.



Agerreko

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Agerretxikitik gertu, 100 bat metro, gorantz doan bidearen ondoan, ezkerraldean.



Egoera:

Txarra: Iturri edo aska honi buruz, gertukoengandik iritzi kontrajarriak ditut.

- Batek: Ur ona da. Abereak ez ezik guk ere edaten genuen.
 - Besteak: Ez da ur ona. Abereentzako, bakarrik, izan da.
- Gaur egun ez dauka iturri-itxurarik.



Borda Zuloko

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Bordazulo goikoaren inguruan, bide ertzean.



Egoera:

Txarra.

Aska estalia dauka. Ura edateko oso deserosoa edo ezina.



Iturria
2005eko uda/negua



Kokapena:

Sorozabal baserriaren inguruan, bide ondoan.



Egoera:

Ur gutxi. Aska eta iturri nahiko egokia.



Antso / Auntsoro

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Gorantz bidean 300 metrotara, Urretxu etxera iristear, bide ondoan eta bihurgunean.



Egoera:

Ia agortua. Ur jarioa edo aldegitxura dauka. Iturri-aska itxurosoa.

Begiratzea merezi du.



Askatxoa

2005eko uda/negua



- ➡ **Kokapena:**
Lauztiako baserriari itsatsia.
- ➡ **Egoera:**
Ur sulfurikoa. Sendagai gisa eramaten omen da. Behar bada iturrien zerrendari ez dagokio, kontuan izanik bere erabilera eta non kokatua dagoen. Ez litzateke posible iturri bihurtzea?
- ➡ **Aipagarria:**
Lauki formako aska itxia da, hoditik bertara ur tantak isurtzen dira.



Inbidittakoa

Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

Iturbe etxetik 100 metrotara, mendirantz doan bidearen eskuinean.
Errekatxoaren alboan.

➤ Egoera:

Nahiko ona. Iturrian 1946 zenbakia dauka. Urte horretan konpondua?



Marti

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Lauztiturrietatik Urrutxurantz bidean AÑAI mendi zeharrean.



Egoera:

Txarra. Aska estalia. Etxetarako ur bideratuak. Itzate baserrirako hemendik eta beste iturri batzuetatik bideratzen dute beraien urak. Ez al dira bateragarriak etxetako ur premiak eta iturriek mendian zehar dituzten eginkizunak? Mendizale egarrituei edaten ematea alegia. Aztertu behar litzatekeen egoera.



Iturritxo / Dorronso Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Lizarrabe menditik 30 minutura. Muskiako bide ertzean.



Egoera:

Edaterik ez. Aska estalia. Zehar honetako beste iturri batzuen egoera: Baserrietako ur hartuak.



Arribaso

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Lauztiberri baserritik gora, 200 metrora ezkerrerantz, erreka zeharkatuaz, mendira doan bideari jarraituaz 40 minutuko igoeran.



Egoera:

Txarra. Ura bai, baina ez... edateko iturria hautsia. Tokia, iturria eta aska nahiko polita.



Akerreta

Iturria

2005eko uda/negua



➡ **Kokapena**
Lizarrusti-Lareo bidean.

➤ **Egoera:**
Txarra. Agortua. Iturri egokiago bat merezi da, mendizale askoren joan-etorriko bidea dela kontuan izanik.



Urbarrena / Urgoiena

Iturria

2005eko uda/negua



- ➡ **Kokapena:**
Urkillagako gurutzetik Lareora doan bide ondoan, lehenengo langara iristear.
- ➡ **Egoera:**
Ur oso gutxi. Bai iturri bai aska egokiak.
- ➡ **Zera dago irakurgai:**
«Bakearekin osasuna»
D. Joxe Miel - 31-12-84



Urkillako

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Urkillaga gurutzetik Ibondo baserrirako bidea hasten den hartan.



Egoera:

Ondo.

Goi aldean dagoen ur-depositutik hartua. Aia-iturritako ura da.



Amusta

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Larburu baserritik Olatza bidean 300 metrotara.



Egoera:

Ona. Ur oso onaren fama du. Garai batean, inguruko baserrien auzolanari esker egina. Gaur egun Olatza Berrikoak bertatik hornitzen dira. Aska hau harri batean «hustuta» egina da. Guzti honen berri Larburuko Felix Auzmendik emana.



Iturtxota

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Kantxillu baserritik gertu. Aizkorrondo bidean.



Egoera:

Ura bai, baina edateko gaizki.

Hobetu beharrekoa...



Aizkorrondo

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Aizkorrondo etxetik 100 metrotara. Aizkoetako bidean.



Egoera:

Txarra. Iturria ur aldetik nahiko ondo dago. Baina Aizkorrondo etxera bideratzeko mangera dela eta, ura edatea zaildu egiten du.



Bedamako

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Bedama-Aitzio bide-gurutzetik eskerreranzko bidexkan, 40 metrotara.



Egoera:

Metal-ura da. Iturri honi ere zahar-berritze bat ondo etorriko litzaioke.



Aska

Iturria

2005eko uda/negua



➡ **Kokapena:**

Etxebeltza baserritik oso gertu, Saletxera (Aitzarte) doan bide ondoan.

➤ **Egoera:**

Kaxkarra. Ur ona, baina gutxi. Hau ere txukundu beharrekoa.



Aldatso

Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

Aldasbarren edo Sagu Zahar aterpetik Agauntz bidean, pagadira iristean.

➤ Egoera:

Ur gutxi. Iturri eta aska nahiko onak.



Iturria
2005eko uda/negua



➡ **Kokapena:**
Alasbarrenako edo Sagu Zahar Aterpe inguruan.


➤ **Egoera:**
Agortua. Iturri eta aska nahiko ona.
Ura bertan jaiotzen zelarik eraiki zuten iturri hau orain dela 20 urte.



Sahasti Zahar

Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

Amuñain Goikoa bidean. Amuñain Behekoa bide-gurutzetik 100 metrotara eskumara eta gero 30 metrora eramaten gaituen txoko batean.

➤ Egoera:

Txarra. Dituen bi iturriak estaliak dira.

Iturri honek Amuñain Behekoa baserria hornitzen du. Udan lehorteak dela eta, iturri handia lehortu egiten da eta iturri txikitik hartzen dute ura. Ur hau metal-ur antzekoa da.



Amuñain (Behekoa)

Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

Kurtuitzen gorantz hasten den bidetik (lehengo bidexka) Amuñain Behekoa baserrira iristear.

➤ Egoera:

Oso txarra. Amuñain baserriko Miel Agirrek esan didanez, mendiko bidea eta pista irekitzearen ondorioz, zeharo desitxuratuta geratu zen, garai batean hain ederra zen iturria. Badirudi uraren barne ibilbideak aldatu zirela. Lehen iturriaren goialdetik ura hartzen zen eta orain agortua dago. Eta bere ondoan, baina azpian, ur putzua dago. Ura ona eta iturri inguru txukuna, eserleku eta guzti, atsedentoki ederra omen zen. Mendizale edo ibiltari askok, batez ere San Martindik igotzen direnak, oso gustukoa dute bertako atsedena. Beharbada, beste iturri batzuek bezala, honek mereziko luke ahalegin bat, gutxienez aztertu errekuperatu litekeen edo...



Beltsoaras

Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

Mendabietako zubitik (Kaxetara iristear) Bernoara bidean lehenengo bordaren aurrean.

➤ Egoera:

Ur gutxi, ez du ura isurtzeko tututik, baizik eta teilatik isurtzen da. Askarik ez du, iturri itxurarik ez du



Kaxetako

Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

Kaxetatik Lizarrusti bidean eskuinera, lehenengo zubiaren bukaeran.

➤ Egoera:

Ur gutxi. Badirudi uraren bidea desbideratua dagoela. Iturriaren egitura, harraska eta guzti, onargarria da.



Iturria
2005eko uda/negua



- ➡ **Kokapena:**
Lazaroren artzain txabolatik (Agautz bidean) 200en bat metrotara ezkerreantz.
- **Egoera:**
Zeharo lehortua. Egitura ona aska eta guzti, baina urik gabe...



Goiko / Amiletako

Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

Muntxoeta baserritik Amilletara iristear, eskumara doan bidexkari jarraituz 100en bat metrotara.

➤ Egoera:

Ona, ur ugari. Inguruko bizilagunen aburuz iturri oso ona omen da. Iturriaren azpian depositua du, bertatik Amilleta eta Muntxoeta baserrikoek ura hartzen dute.



Saletxeko (Aitzarte)

Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

Dostollo zubitik 200en bat metrotara, Aizkorrondora doan mendi bidexkan (lehengo bide zaharrean), ezker aldeko txoko batean.

➤ Egoera:

Nahiko kaxkarra. Badirudi urik badagoela, baina mangera baten bidez etxe baterako hartuta dago. Egoera honekin iturri bezala ezin du funtzionatu. Bestela iturri itxurosoa, aska duelarik.



Iturtxo

Iturria

2005eko uda/negua



➡ **Kokapena:**
Iturtxo baserritik gertu, mendirantz.

➤ **Egoera:**
Ur gutxi. Iturria, egitura modura, nahiko ona. Baita aska ere.



Lautz Beltz

Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

Iparragirre baserrira hartzen den bide-gurutzetik metro gutxitara, Sotxota baserrira bidean ezkerrean.

➤ Egoera:

Oso gaizki. Iturri itxurarik gabe, estalia. Iturtxo baserria bertatik hornitzen da.



Iturriotz

Iturria

2005eko uda/negua



- ➡ **Kokapena:**
Iturriotz baserrira iristear, 100en bat metro lehenago. Bide ondoan, eskuinean.

- **Egoera:**
Ur gutxi. Iturria nahiko ondo egitura aldetik, aska eta guzti.
Hemendik hornitzen omen dira ondorengo baserriak: Armuño, Itzate eta Arratiñe.



Abauko

Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

Itzate baseritik Matasora bidean, basoan sartu eta 100 metrotara, beheko aldean. Dagoen toki inguruak Abauko izena du eta hortik datorkio iturriari izena.

➤ Egoera:

Ur ugari. Iturri honek bere fama du. Ur "zoragarria" omen da Itzate baserriko etxeoandreak esan didanez. Hain ona izanik gaur egun ere etxera hortik jarraitzen dute ura eramaten.



Beli (Bela ?)

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Mendiurkulu baserriko ataritik -15en bat minutuko ibilbide/jaitsierakanpoaldera begiratzean, ezker aldera maldan behera pinudiaren barrenean txoko batean.



Egoera:

Ur gutxi xamar. Ura bai, baina zabaldua. Metal-ura, gainera oso nabarmena. Bestalde nahiko egokia, aska eta harraska eta guzti. Aipatzekoa ere Mendiurkulu-ko, Pello, Zeles eta Joxemari Agirre anaiek berriki eginiko iturriaren txukuntze eta aurrealdearen egokitze lanak. Aipatu digutenez, etxean urik gabe zeudenean, hemen garbitzen zuten arropa. Gaur egungo itxura beste bat da zeren argazkia txukuntze-lanak egin aurrekoa da.



Ibarondo / Ibondoko

Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

Ibarondo baserritik Txuloa baserrirantz begira, sahasiaren azpiko aldean, txoko batean, 5 minutuko jaitsiera bidean.

➤ Egoera:

Txarra. Ura bai (metal-ura), baina bideratu gabea. Bi aska ditu, baina horietako bat hautsita. Gaur egun oso utzia dago. Benetan iturria bikaina izan zitekeen, baita bere ingurunean ere.



Matxi

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Praiskone baserriaren gibelean (100en bat metrotara), mendirantz txoko eder batean dago kokatua.



Egoera:

Oso txarra, sasi, eta abarrek hartua. Iturri hau ere bikaina izan zitekeen. Badu aska.



Iturria
2005eko uda/negua



- ➡ **Kokapena:**
Lardatxiki baserria ondoko errepidearen azpialdean, txoko batean. Lardatxikiko Joxe Mujikak esan zigunez, orain ezagutzen den bide berria eraikitzearekin batera aldatu zen iturri honen kokapena.
- **Egoera:**
Metal-ura. Egoera onean dago. Aska bikaina.



Agortu / Abortuko

Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

Aitzio baserritik 15 minutura errekarantz doan bide amaieratik oso gertu (errexkaren ezkerrean).

➤ Egoera:

Egoera oso txarra. Iturri itxura ez du. Sasi eta larrez inguratua dago.



Beraungo

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Sabia baserriaren azpialdean, oso gertu, txoko batean.



Egoera:

Oso txarra. Goialdean ur-luiziak direla-eta desbideratua dago erabat. Sabiako Patxi Galparsorok esan zigunez, lehen iturri honetatik Muñoa eta Sabia baserriak bertatik hornitzen ziren. 100 urte betetzear dagoen Patxiren amak, betidanik ezagutu izan du Beraungo iturria bezala. Aska bikaina du. Askaren egitura, beste hainbatetan bezala, nahiko bitxia da, harri handi baten barrena hustuta egin baitzen.

(jarraitzen du)

Beraungo

Iturria

Mereziko luke konpontze bat, txukuntze bat... hala ere lan asko eragingo luke, baina egin beharko litzateke. Dagoen toki ederrean egonik, inguruko lur zatia... Atsedeen-toki modura jar liteke. S. Gregorio gunetik ibilbide ederra.

San Martindik Ergoneranzko erreka zeharkatzen duen bidexkan, komeniko litzateke San Gregoria iristean, iturri honetara daraman bidea seinaleztatzea. Ibilbide horrek 1,5 km bat dauka, oso bide eroso eta ikusmira eta paisaia ederrak eskaintzen baititu.

Momentu honetan iturriaren egoera "penagarria" da. Bide batez konpondu beharreko.



S. Gregorio Plazako

Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

San Gregorio plaza edo enparantzan.

➤ Egoera:

Herriko ur saretik hornitua. Enparantzako zahar-berritze lanak direla eta, iturria ere zaharberritua izan da bere norabidea zertxobait aldatu dutelarik.

1925. urte inguruan egin, Pilotalekua egin zuten garai beretsuan. (Anuario de la Sociedad de Eusko Folklore, 1925. *Contrib. estudios casa rural establ. humanos, Pueblo de Ataun-en aipatua*). Berriemailea Jon Aizpurua.



Ala

Iturria

2005eko uda/negua



➡ **Kokapena:**

Haitzondo baserritik 100 metrotara, Intzartzurako bide ertzean

➤ **Egoera:**

Oso txarra. Aska ziztriña. Ondoan du Paskual iturria hornitzen duen ur-depositua, etxe itxura duelarik. Ura edateko era, oso deserosoa da. Bai iturriak bai ur-deposituak zaharberritze sakona eskatzen dute.



Ugei (Ubei ?)

Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

Ugeiko artzain txabolatik 30 minutura, Agauntz bideari jarraituz, ordekan dagoen pinudiaren ezker aldean. Maldan gora, hasieratik oso gertu.

➤ Egoera:

Ur gutxi. Uda garaitik ziurrenik agortua. Aska nahiko ona, garbitu edo txukundu beharrean.



Izkutune

(Beiztigo aska zaharra)
Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

Beiztin baserriaren azpiko aldean. Gaur egungo errepidearen beheko aldean, lehengo herri bidearen ondoan.



Egoera:

Ura bai, baina bideratu beharrekoa. Aska neurritz egokia. Hau ere garbitu eta txukundu beharrean.



Iturria
2005eko uda/negua



➡ **Kokapena:**

Sotxota baserritik 100 metrotara, Arantza mendirako bide ertzean.

➤ **Egoera:**

Aska bikaina. Harri batean egina, barrena hustuaz. Ura edateko orduan deserosoa da iturria hau. Txukuntze- eta egokitze-lanak eskatzen ditu.



Samolatza

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Atxurrene etxetik 40 minutuko bide ostean, betiere Samolatza mendirako ibilbidea jarraituz. Bigarren zubia igarotzean, 50 metrora eskuinera, errekarara doan bidetxurrari jarraituz.



Egoera:

Ur ona. Ur oso onaren sona du. Askarik ez du. Iturria Atxurrene etxeko Felix Zeberio (g.b.) egina da. 1945. urtean. Ingurune hau ezagutzen ez duen batentzat ezinezkoa edo ia ezinezkoa da iturria aurkitzea. Beste toki gehienetan bezala, iturri seinale baten falta nabaritzen da.



Iturri Berria

Iturria

2005eko uda/negua



➡ Kokapena:

Kaxetatik Aiara bide ertzean, eskuinen. Bertako erdigunea baina 100 metro lehenago.

➤ Egoera:

Ur aldetik emankorra. Iturri berria. Aska ere badu. Ura mangera beltz batetik dario. Nire aburuz, hodi itxurosoago bat jarri beharko litzateke. Askaren ur gainezkaren bideratzea hodi baten bidez modu egokiago batean egin daiteke eta ez orain dagoen bezala, aurrealdea bustitzen duelarik.



Erremedioko

Iturria

(Bañu-etxea)

2005eko uda/negua



Kokapena:

Aitzio baserritik 500 metrotara, Agautz azpian (sagu zahar) bidean, eskuinera.



Egoera:

Oso txarra, lehengo iturria desagertuta. Errekarako bide amaieran, lurrean sarturiko hodi edo antzerakotik ura isurtzen da. Baserri-etxea suntsituta, horma arrastoak gelditzen direlarik.

Ur sulfurikoa. Senda-ur fama duena, batez ere azaleko arazoetarako. Gaur egun ere badira ur hau hartu eta eramaten dutenak.

(jarraitzen du)

Erremedioko

Iturria

Izan, berez izena besterik ez zaio geratzen. Hara zer asmorekin hasi ziren 1839ko urtean. ERREMEDIOKo uraren onuraz jabeturik, bainu-etxe bat eraikitzeko asmoa aurkeztu zioten Ataungo udalari. Iturriaren ondoko Erremedio baserriaren jabeak Francisco Munduate Agirre eta bere koinatu Benito Arruabarrena Dorronsoro ziren. Jabe hauek iturriari etekin ekonomikoa atera nahian, pentsatu dezakegunez, eskubideak lortu nahian, gobernu zibilera jo zuten udalari berri eman gabe.

Udalean mugimendu hauetaz konturatzean izugarrizko ekaitza sortu zen. Han omen ziren udal-ordezkarri eta -jabeen arteko liskar eta haserreak! Azkenean udalak lortu zuen ur hauen eskubidea, baserria bera ere erosi zuen.

1887: Udalak erabaki, eta ahalegindu zen, Erremedioko ura hodi bidez Iztator baserri ingurura gerturatzen, baina helburua ez zen guztiz lortu. Orain dela 30 urte zeramikazkoak ziren hodi hauen aztarnak ikusgai zeuden (Arratetatik Aitzarterako bide ertzean, eskuinean).

(jarraitzen du)

Erremedioko

Iturria

1892: Udalean bainu-etxea saltzearen eztabaida abian jarri zen. Enkanteen bidez epe baterako alokatzen zen, baina jartzen ziren baldintzek geroz eta zailagoa egiten zuen interesatuak aurkitzea.

1902: Udalari Donostiako Otero Beraza ahizpek erosi zien. Ahizpa hauei baimena eman zitzaien zaldientzako ukuilua eta jan-edaria gordetzeko bordatxo bat eraikitzea. Baimen honen truke udaletxeak 2 pezetako zerga jarri zien. Ataungo herritarrei bainu-etxeko zerbitzuak eskaintzen zieten abantailen truke udalak urtean 30 gurdi-egur eman ohi zion.

Bainu-etxeko eraikuntzak kapila ere bazuen.

Aurrekoei entzunda, Erremediora zihoazenei beren zamak astoetan eramaten zieten ordain-sariaren truke.

Ikusten denez Ataunen turismoaren eragina ez da «gaur goizekoa...»

ERREMEDIO, ERREMEDIO, ERREMEDIO BILA ZIJOAZKIZUN...

GAUR ERREMEDIOA NAHIKO ZENUKE... !!!



Iturria
2005eko uda/negua



➡ **Kokapena:**

Sotxoeta goialdeko mendiko "pista" bidearen jarraian, garai batean egiten ziren erromeriak hain sonatu zen "Aranzamendiko" pagaditik (4 edo 6 zuhaitz) gertu, azpialdean bide ertzean.

➡ **Egoera:**

Ur eta aska nahiko ondo. Akatsa edo... bakarrik abereentzako egokitua. Ondo legoke, ur edangarria izanez gero, Iturria ere eranstea. Mendizaleek eskertuko lukete. Dagoen tokitik ikusmira ederra eskaintze da.



ERDIKO

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Itzatetik Itzate Zaharra baserrira bidean, eskuinaldean.



Egoera:

Ur eman gutxikoa, uda garaian lehortzen delarik. Aska handikoa eta ura dario tutu edo harri dotore egokitutik. Nahiko utzia, belar eta larreak hartua.



ITURRITXO

Iturria

2005eko uda/negua



Kokapena:

Itzate Zaharra baserritik 300en bat metrotara, Telletxe baserrirantz doan bidetik oso gertu azpialdean. Txoko batean.



Egoera:

Oso txarra. Iturri ote den ere zalantza sortzen duelarik. Kontuan izanik gainera, Itzate baserriko sendiak esan zigutena, alegia: inoiz ez dutela edateko iturri bezala ezagutu, abereek edateko baizik. Urak inguruetatik dario. Aska badu baina lar eta sasiak hartua.